

IKASLEEN TXOKOA 119. ZENBAKIA

# Aratz Ikastola

DBH 1-4



# Euskara txikitatik ikasten

Erreportaje honetan Euskal Herrian euskaraz hazteak eta ikasteak dakartzan aukerak eta erronkak aztertuko ditugu. Horretarako, txikitatik euskaraz ikasi duen gazten baten bizipenak bildu ditugu.

## Euskal Herrian ikasten

Haur askok ikasi dute euskara txikitatik, eta bizipen handiak bizi izan dituzte euskarari esker. Euskal Autonomia Erkidegoan gutxi gorabehera ikasleen % 86ak Batxilergoa euskaraz ikasten du. Unibertsitatean, al-diz, ikasleen % 60-70 euskaraz ikasten dute; gainontzekoek gazteleraz edo beste hizkuntza batean ikasten dute.

Egia da hainbat lanbidetan zailtasunak daudela euskaraz bizitzeko, baina urteak pasa ahala euskara indartzen ari da; horrek euskaraz ez dakitenei ezagutzera bultzatu diezaieke.

Duela 40 urte jarri zen mar-txan euskara batxilergoan eta unibertsitatean ikasteko aukera. Gero, 90eko hamarkadan ikasketak euskaraz egitea normalizatu zen. Hala ere, hizkuntza hau unibertsitateko fakultateetara iristeko jende askok esfortzu eta indar handia egin behar izan zuen.

Gaur egun, beste herrialde batzuetako ikasle asko Euskal Herriko unibertsitateetara etortzen dira, hemen aukera zabala dagoelako. Nahiz eta kanpotik datozen gehienek gaztelaniaz ikasten duten, euskara polita iruditzen zaie eta ikasteko go-goa pizten zaie askori. Hala ere, txikitatik ez erabiltzeagatik edo hizkuntza menderatuta ez izateagatik, ez dute unibertsitateko karrera euskaraz egiten. Horre-



*EHUko Leioako kanpuseko liburutegia.*

gatik, horietako askok euskalte-gietara edo akademiara jotzen dute hizkuntza ikasteko eta indartzeko.

## EHUko ikasketak: aukera anitza euskaraz

Euskal Herriako, EHU/UPV unibertsitatea, unibertsitate publiko nagusia da. 1980. urtearen inguruan sortu zen, eta gaur egun campusak ditu Bilbon, Donostian eta Gasteizen ere.

Unibertsitate honetan milaka ikasle ikasten dute urtero eta, gaur egun, 100 gradu baino gehiago eta master asko eskaintzen dituzte.

EHUren helburuetako bat,

euskararen erabilera sustatzea da, bai ikasketetan eta erabilera mailan. Horregatik, master eta gradu asko hizkuntza honetan ematen dira.

EHUz gain, badira beste unibertsitate zein Lanbide Heziketako zentru asko euskaraz ikasteko aukera ematen dutenak.

## Gazte baten esperientzia: txikitatik euskara eta euskaraz ikasten

Ane Hernandez Anaut 17 urteko gaztea da, eta Aratz ikastolan HH, LH eta DBH ikasketak egin ditu. Bere ama-hizkuntza gaztelera izan arren, txikitatik euskara ikasteak asko lagundu

dio hizkuntza segurtasunez hitz egiterako orduan. Hala ere, airtortzen du euskara hitz egiterako orduan, oraindik ere batzuetan urduri sentitzen dela. Baina ikastolan zein lagun batzuekin euskaraz egiten jarraitzen duenez, egunetik egunear segurua sentitzen da.

Ikastolako lehen urteak euskaraz gogoratzen ditu. Hain zuzen, bere oroitzapen politena bere lehen lagunak dira. Orain, berriz, Batxilergoko ikasketak burutzen ari da. Lehen maila erraza egin zitzaioala dio, baina bigarren maila gogorragoa izaten ari dela azaldu digu. Ikasgai guztiak euskaraz egiten ditu, ingelesa eta gaztelera izan ezik. Eta kontatu du euskararekin ez duela inolako arazorik izan.

Gaur egun selektibitatea prestatzen ari da. Adierazi digu estres handiarekin dagoela, ikasteko denbora gutxi duelako. Baina argi esaten du euskaraz egiteak segurtasun handiagoa ematen diola, akats gutxiago egiten dituelako gramatikalki.

Gaineratu du, orain arteko jarraituz, etorkizunean euskaraz lan egitea asko gustatuko litzaiokeela.

*Egileak: Nora Hernandez eta Ane Juarros*



*EHUko logoa.*

# Bizitza ez da bideo joko bat; aukera bakarra dago

## Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza

Egunerokoa, zenbat aldiz jarriko ote genuen gure bizitza jokoan? Eta gainera, arriskuaz jabe izan gabe. Hauetako kasu bat, kotxea hartzeko garaian da nabarmen; askotan entzuten dugu segurtasun uhala jartzea ezinbestekoa dela eta gure bizitza salbatu dezakeela istripu baten kasuan. Gaurkoan, baieztapen hori azalpen zientifi ko sendoetan oinarrituko dugu. Artikulu honen helburu nagusia gazteen artean segurtasun-uhalaren erabilera sustatzea da, honetarako, zientziaren dibulgazioan oinarritutako azalpen argia eta fi dagarria eskaini nahi dizue Eusko Jaur-laritzaren Trafi ko sailak.

Autoan bidaiatzea, egunero-ko praktika eroso eta erabilgarria da; baina uhalaren eraginarekin jabe izateko goazen adibide batzuk ulertzera!

Imaginatuz, autoz unibertsitate bidean zoazela abiadura jakin batean eta nola ez, ez duzu

segurtasun uhalik jantzi nahi izan. Halako batean, errepidean aurkituriko oztopo baten ondorioz, bat batean balaztatu behar izan duzu, zure gain eta kotxean duzun kontrola galduz. Egoera ahalik eta errealistena izan dadin, esan dezagun 70kg-ko masa duzula eta 0,40 segundu behar izan dituzula erabat gelditzeko. Segurtasun uhalik jantzita ez duzula gogoratuz, gorputzak jasango lukeen azelerazioa 50 m/s<sup>2</sup>-koa izango litzateke eta beraz, zure gorputzaren gain agertzen den indarra 3500N-ekoa.

Egoera honetan mahai gainean jarriko dugu Newton-en lehen legea «gerrikoaren» garrantzia ahalik eta hoberen ulertzeko. Zehazki, «higidura uniformean mugitzen ari den gorputzak, bere egoerak aldaketan jasan ezker, aldaketa horiei aurre egiten saiatuko da eta bere joera mantendu nahiko du». Kotxeak balaztatu ostean, gorputzak «inertziak» erantzun-go luke, hau da, lehen zuen joera mantentzen saiatuko da, inda-

rra aurrerantz bideratuz.

Antzeman daitekeen bezala, gorputz batek 3500N-eko indarrerekin aurrera egiten badu, beste gorputz batekin topo egiteko momentuan inpaktua ikaragarria izango da, pertsona oso egoera 'grabe' edo besterik gabe, hilik utziz.

Bestetik, goazen egoera berdina analizatzera baina segurtasun uhalaren presentziarekin!

Uhala jantzita izanda gogor balaztatzean, gorputza tarte batean aurrerantz mugitzen dela aipatu dugu; uhalak mugimendu hori gelditzen laguntzen du, hau da, gelditzeko denbora luzatuko du. Baieztapen hau datu eta kalkuletan oinarritzeko, jakin uhalak 1.2 segundura luzatuko duela gelditzeko denbora hori; gainera, gerrikoak, indarrak gorputzeko zati gogorrenetara banatzen ditu, pelbisa, toraxa...

Hortaz, azelerazioa egoera berri honetan, 16,67 m/s<sup>2</sup>-koa izatera igaroko litzateke, beraz, gorputzak jasango lukeen indarra 1166,9N-ekoa litzateke.

Argi eta garbi antzeman daiteke, bigarren egoeran, indar erresultantea edo gorputzak bere gain jasango duen indarra asko murriztuko dela lehen egoerarekin alderatuz; zehazki, ia 3 aldiz murriztuko da gorputzak bere gain jasango duen indarra, hau da, uhalik gabe gorputzak jasango lukeen indarra 3 aldiz handiagoa litzateke.

Ondorioa oso argia da, segurtasun uhalak bizia salba diezaizuke!

Tarteko, akzio-erreakzioan edo Newton-en 3.legean ere sakonduko dugu segurtasun uhalaren eta bidaiariaren arteko «erlazioa» ulertzeko. Beraz, gorputzak inertziak, bere joera mantendu nahian, aurrera indarra egitean, gerrikoari eragingo dion indar berdina jasango du gorputzak, hau da, uhalak indar berdinez «erantzun» du. Akzio-erreakzioak postu garrantzitsua du kasu honetan, lehen esan bezala, gorputzaren gain dagoen indar hori neurri handi batean murrizten lagunduko duelako. Hala ere,

kontuan izan, indarra ez dela anulatuko, indarrek gorputz ezberdinetan eragiten dutelako.

Azpimarratuz, segurtasun uhalik ez balego, gorputzak bere gain duen indarra ez litzateke murriztuko.

Hau guztia ikusi ondoren, segurtasun «gerrikoa» jartzea nabarmentzen duten argudioak ez dira jolasa, segurtasun uhala jartzea ez da bideojokua; zientifi koki justifi katua eta kalkuletan oinarritutako ondorioak azaleratzen dituen baieztapena da. Ikusi dugun bezala, inpaktua 3 aldiz murriztu daiteke, hortaz, istripuetan hildako pertsonen %30ak gerrikoa ez zera-mala jakinik, pentsa! Segurtasun uhala erabiliz, tasa hori, 3 aldiz murriztu genezake.

*Egilea: Jare Huegun Etxebeste*

*Iturria: Eki proiektua; Fisika eta kimika, sormenaren indarra (DBH; 2.unitatea)*

# Museoen lapurretak mundu osoan zehar



'A Reclining Figura'

Londresko iparraldean desagertua. 2005eko abenduko gau batean, banda batek Henry Mooreren A Reclining Figura (Figura etzan bat) (1969-1970) lapurtu zuen.



Louvre museoa.

Igande honetako 1911n Mona Lisa desagertu zenetik Louvre museoan egin den lapurretarik ikusgarriena da. Eta zalantza handiak sortzen ditu Frantziako artelanak babesten dituzten segurtasun mailen inguruan, talde kriminalen helburu gero eta gehiago diren honetan.

Urriak 19ko igandean Apolo galerian sartu zen taldea profesionala zen, argi eta garbi. Bazekiten zer nahi zuten, alde aurretik zelaia aztertu zuten, jakina, modus operandi simple baina eraginkorra zuten, eta ez zuten zazpi minutu baino gehiago behar izan harrapakina eramane eta ihes egiteko. Eskailera zabalgarritz hornitutako kamioi batean, kalean aparkatu, bigarren solairuraino igo eta, ondoren, leiho batetik sartzeko disko-ebakigailu bat erabili zuten. Dotore apaindutako galeriaren barruan, koroa frantseseko bitxietatik geratzen dena gordetzen duten bi beira-arasetara joan ziren.

Louvren kamerarik ez egoteak ahalbidetu zuen lapurrak iristea, zuzendariaren arabera. Parisko museoeko zuzendari Laurence des Carsen Senatuaurrean deklaratu zuen dimisioa eman zuela errege bitxien lapurreta izugarriaren ondoren.

## Beste lapurreta batzuk munduan

### 'Gioconda'

Hau ere Louvren. 1911n, Louvrek lapurreta ikusgarria jasan zuen. Langile ohi bat, Vincenzo Peruggia, segurtasun neurri handirik ez zegoela jakinik, abuztuaren 21ean, astelehena, goizeko zazpietan sartu zen eraikinean, instituzioa itxita, eskailera batera igo eta Mona Lisa hartu zuen instalazioetatik atera aurretik, altxorra laneko mantalaren azpian zuela.

### 'El grito' Munchena

1994ko otsailaren 12an Paul Engerrek minutu bat baino gutxiago behar izan zuen Osloko Galeria Nazionalera sartu eta egurrezko eskailera batekin Munch aretora igotzeko.



Museoen lapurretak ez dira beti leku itxietan izaten, aire librean ere badaude lapurreta batzuk. Eta ez oso arinak gainera.

## Jorge Llopisi elkarrizketa

Jorge Llopis, pecadosdelarte.com aldizkariaren zuzendaria da. Artearen aurkako delituei, ondareari, artelanen lapurretei... buruz Espainian gehien dakien pertsonetako bat da.

Badago halako talka bat albiste honetara hurbildu garen jendearentzat, fi lmetan, ba tira, batek ikusten ditu lapurretak non Tom Cruise ateratzen den hari batetik zintzilik laser izpiak pasatuz. Errealitatean ordea, hiru gizon garabi batetik igotzen dira, leiho bat hausten dute, bitrina hausten dute, la-



purto eta garabiko eskaileratik ateratzen dira hiru scooterretan alde eginez. Errealitateak fi kzioa gainditzen du.

Modus operandia, kutre samarra dirudi. Horretarako oso ausarta izan behar dira. Zentzu horretan profesionalak dira eta ez da baztertu behar, museoetako lapurreten %95ean bezala, museo barruan dagoen jendearen parte hartzea oso ohikoa dela. Hau dela eta aste honetan, logikoa denez, gauza asko egin dira, segurtasun kontu asko dira museoaren segurtasuna... Askotan galdetzen dut zer segurtasun den zaindariak egotea, zaindari gehiago egotea lapurretarik egin ez dezaten, edo dagoeneko zaintzaile gehiago egotea ergel gehiago egon ez daitezene non koadroak zikitzen dituzten?


**Irratia** -Nik benetan zer izan daitekeen uste dut, baina ez zaio jendeari gustatzen. Finantza-munduko artikulu bat irakurri nuen non esaten duten, "artnapping «artelanen bahiketa baten aurrean egon gintezkeela. **Jorge** -Bai, zergatik ez. «Artnapping» artea lapurtzeko modu bat da, harekin negoziatzeko asmoarekin. Duela hogeita hamar edo berrogei urte inguru jarri

zen martxan, hain zuzen ere poliziaren ikerketak saihesteko, funtsean objektu pertsonaletan zentratzeko. Biolin baten kasua jartzen dut, eta egia da biolinak lapurtzen hasi zitzaizkielako kontzertista ospetsuei, biolin oso garestie, eta, beno, istorioa hain zuzen ere, kontzertua baino hamar egun lehenago zen biolina lapurtzen zizutela. Zure biolinaren erreskatea eskatzen zuten, eta zuk eskatzen zizuten dirua eman behar zenuen, bestela ezin zenuen biolina jo.


## Europa, artearen eta ondasun kulturalen lapurretaren epizentroa

Hau guztia laburtuz, Europa da lapurreta gehien jasaten dituen herrialdea, gehienak numismatikakoak dira, hau da txanpon, domina eta diru-paperaren azterketa eta bildumen lapurretak. Nahiz eta leku guztietan egon lapurretak, museoetan oso bereizgarriak dira, gehienbat margo edo bitxien lapurretak badira. Azken lapurretan honek jende askori afektatu dio, gehienbat, museoeko zuzendariari edo Frantziako presidenteari adibidez.

Egilea: Intza Irurtia Cia



## Gehien ostutako objektuen top 3



Lapurtutako objektu kulturalen kopurua eskualdeka 2021ean..

# Nerabeak eta alkohola

Mundu osoan dagoen arazoa da alkohola, gehienbat nerabeen artean. Izan ere 12 eta 13 urteko ikasleei buruzko ikerketa batek (2023) adierazten du %36'6k alkohola kontsumitu duela nozbait, eta azken hilabetean %21'5ek. Gainera alkohola goiz eskuratzeko erraztasuna nabarmentzen dute gazte horiek. Horregatik, nerabeen eta alkoholaren arteko erlazioa defendatzea da gure helburua. Naiz eta ez gauden oso ados alkoholaren kontsumoarekin, iruditzen zai-gu nerabeek badituztela beraien arrazoiak alkohola edateko eta hori egin ondoren burua galtzeko.

David Bueno biologia ikertzaileak esan zuen bezela nerabeak heldu bilakatzen dira beraien inguruko helduak berdin tratatzerakoan. Orduan nerabeak zer egiten dute, IMITATU. Horretarako badaude neurona batzuk, «neurona espejo». Neurona horiek gehienbat nerabezaro eta haurtzaroen daude martxan. Lehen esan dudan bezela beraien inguruan gertatzen dena imitatzen dute. Kasu hontan beraien gurasoek alkohola edanez gero, beraien zer egiten dute imitatu.

Presio soziala oso arrisku-tsua izan daiteke, gehienbat ne-




Hasteko, adituen arabera, erabezaroa arriskuak hartzeko eta emozio berriak bilatzeko joera handiena duen bizi-etapa da. Nerabezaroan beti gaude plazeraren bila, hau da gure garunean dagoen «circuito de recompensa» deitzen zaion hori beti dago martxan. Amigdalaren hasten den zirkuitoa da hau, emozioan hobeto esanda. Hurrengo etapa prefrontala da, hau da emozioa ondoren objetiboa dago. Zirkuitoa ez da amaitzen baina haren azkenengo zatia estriadoan dago, hau da saria da azkenengo zatia.

Beste puntu garrantzitsu bat

rabezaroan. Izan ere alkohola edateko orduan ere gure inguruak asko eragiten du. Hau da zure lagunak alkohola edaten badute baina zuk ez, orduan beraien pentsatzen dute beldurti bat zarela eta taldetik botatzen zaituzte. Bada hori ez gertatzeko, nerabeak beraien inguruari egiten diote kasu.

Nerabeen alkohol kontsumoak arazo mentalak sortzen ditu, garun bat kaltetzen baitu (oroimenari, ikaskuntzari eta erabakiak hartzeari eragiten die), eta depresioa, antsietatea, autoestimua baxua eta suizidioa izateko arriskua areagotzen du.



Burdinazko barra batek burezurra zeharkatu zionetik 1848an bizirik atera zen tren-langile bat, bere lobulu frontala larriki kaltetuz, eta horrek nortasun aldaketa erradikala eragin zuen. Arduratsu izatetik oldarkor eta desinhibitu izatera igaroz, horrela, lobulu frontalaren eta funtzio exekutiboaren, nortasunaren eta jokabide sozialaren arteko lotura frogatuz, giza burmuina ulertzeko funtsezko azterketa. Alkoholarekin berdina gertatzen da, gure prefrontala deskonektatu egiten da eta ez gara kontziente zer egiten dugun. Kasu hau Phineas Gagen da eta neurologia munduan asko lagundu duen kasu bat izan zen.

Nerabeetasunean alkohola edaten baduzu, arazo batzuk

izan ditzakezu. Adibidez, garuneko eta/edo memoriako kalteak izatea, istripu arriskua handitzen du, ikastea zailagoa egiten du eta notak jaisten ditu, lagunekin eta familiarekin arazoak, alkoholismo arriskua, giltzurrun eta bihotzeko arazoak edo humore aldaketa bortitzak. Lehen esan dugun bezela nerabeetasunean alkohola hartzeak ondorio asko ekar ditzake. Ondo pasatu nahi baduzu, saiatu skatea, kirola edo beste ekintza osasuntsu batzuk! Alkohola ez da aukera egokia, baina edan nahi baduzu, moderazioekin eta barrik adinez nagusia bazara. Eta bazkari bat badakazu edo, ura edan. Lehen esan dugun bezela, jendea askotan alkohola edaten du presio/tensio sozialarengatik.

Egileak: Haizea, Lihuri, Eneko, Oroitz eta Intza



David Bueno biologia ikertzailea.

